

**Prensa-akreditazioak:**  
**2019ko uztailaren 29tik irailaren 2ra arte**  
**Emaitzak: 2019ko irailaren 6an**

Mark Lanegan Band.

## **Donostia Festibalean parte hartuko duten artisten zerrenda ixteko Beret, Maikel Delacalle eta Carlos Sadness gehitu dira**

- Toteking, Ms Nina eta La Plata, beste ia 20 musikari berriren artean
- Le Bukowski eta Dabadaba aretoak programazioan inplikatu dira berriro ere
- Jaialdiaren kartela egunez egun jakinarazi dute, eta eguneko sarrerak ere salgai jarri dituzte

**Donostia Festibalak** kartela itxi du eta zerrendan sartu diren azken artista handiak **Beret, Maikel Delacalle, Carlos Sadness, Toteking, Ms Nina** eta beste hainbat dira; beraz, egungo joeren eta ikusmolde zabalagoen aldeko apustua berretsi du jaialdiak. **Donostia Hipodromoa** guztiz eraldatuko da **irailaren 13an eta 14an**, eta jaialdi erabat eklektiko baten ezohiko agertoki bihurtuko da. Donostia Festibalak, gainera, egunez eguneko kartelaren berri eman du, eta eguneko sarrerak ere salgai jarri dira. Segidako bigarren urtez, hirian erreferente diren bi aretok presentzia izango dute aurten ere: Le Bukowski eta Dabadaba; bi aretoak programazioan inplikatu dira eta bakoitzak bere agertokia izango du, bere musika-proposamena eskaintzeko.

Musika urbanoak garrantzi handia izango du Donostia Festibalean, eta hip hop-a, dancehall-a, reggae-a eta kalean bizi eta sentitzen diren estiloak entzuteko aukera izango dugu. Kontzertua non, "sarrerak agortuta" txartela han, **Beret** azken urteotako Espainiako musika urbanoan proiektio handieneko artistetako bat dela esan dezakegu; Donostian, 'Ápices' hirugarren diskoa aurkeztuko du sevillarrak, eta reggae-a, rap-a eta dancehall estiloa uztartuz bere burua eta bere bihotza zabalduko dizkigu. **Maikel Delacalle** Tenerifeko auzo txiro batetik dator, baina azken hilabeteotan 180 gradu aldaketa gertatu da bere bizimoduan; izan ere, multinazional batek bere talentuan uste osoa jarri eta 'Calle y fe' izeneko lehen EPa argitaratu du: R&B, trap, dancehall estiloak eta hip-hoparen elementuak fusionatzen dituzten sei abesti biltzen ditu, egia, bizipenak eta, batik bat, hobetzeko grina eta ametsak gauzatzeko borroka islatzen dituzten abestiak guztiak ere. **Toteking** rapero sevillarra sorkuntzaren gailurrera iritsi da 'Lebron' azken lanarekin; izan ere, Grammy sarietarako hautagai izendatu dute musika urbanoko diskorik onenaren sailean, Espainiako rap-estiloan sormen handieneko letra-idazlea baita. Flow zorabiagarria dario eta, disko honekin, bere bertsio zintzoena, onduena, sinpleena eta bareena aurkeztuko digu. 2015. urtetik musika urbanoaren emakumezko figura garrantzitsuenetakoa da **Ms Nina**; latineko peto-petoa da bere musika, eta ahalduntzera, parrandara eta etengabe perreatzera bultzatzen du letra lotsagabe eta dibertigarrirei esker. **Ira Vallecasa**eko lau emakume rapero dira, eta diskurtso feminista ekarriko digute beren 'Rap Save the Queen' bigarren diskoarekin. Azkenik, Joanes Unamuno, **El Negro**, Intxaurrendoko MC aipatu



behar dugu; hamabost urteko ibilbidea du artista honek eta, batik bat, Youtube bitartez ezagutarazten du bere lana.

Gitarrek ere izango dute tokia jaialdian. **Carlos Sadness**ek bere indie-pop estiloa ekarriko digu, reggae-aren eta hirurogeita hamarrekoko hamarkadako gitarren ukituekin; ‘Diferentes tipos de luz’ izena du bere azken diskoak, eta iaz salmenta-zerrendetan bigarren postua lortu zuen Espainian, eta hirugarrena Mexikon. **Nerabe** donostiarrek etxean jokatuko dute; ‘Toki-on’ lehen diskoa aurkeztuko digute, laurogeiko hamarkadako ukituak dituen indie-rocka, erritmo dantzagarriak eta abesti zuzenak. Hiriko bi areto ikoniko aurten ere inplikatu dira jaialdiaren programazioan, eta bakoitzak bere agertokia izango du. Edizio honetan, **Le Bukowski** agertokian honako hauek ikusiko ditugu: ostiralean **Joseba Irazoki eta lagunak** “Zu al zara?” bigarren diskoa eskainiko dute, psikodelia, post-rock eta baita kraut-ukituak ere badituen diskoa; Nafarroatik datorren **Kaskezur** lauokoa laurogeita hamarrekoko hamarkadako oihartzunez betetako rock, power-pop eta psikodelia estiloak uztartuko dituzte; festa amaitzeko, dantzan jarraitu ahal izango dugu **Rukula** taldearekin, beren hitzetan “entsalada dantzagarria” estiloaren barruan sartzen baita beren musika instrumentala; eta DJen txandan, **Budin DJ, Makala DJ Set eta P3Z DJ set** arituko dira.

Larunbatean **Dabadaba** aretoaren txanda izango da: Madrildik post-punk disoziatu eta klasikoa eskaintzera etorriko dira **Antifan** taldekoak; tenpo azeleratuak eta melodia eta lelo koreagarri bezain gogoraerazak, laurogeita hamarrekoko hamarkadako pop valentziarraren oihartzunekin ekarriko dizkigute **La Plata** taldekoek, eta **Melenas** taldearen garage pop abestiak ere entzun ahal izango ditugu, sekzio erritmiko potenteak, psikodelia eta pop-a, melodia hunkigarriekin. Eguna bukatzeko, **Dabadaba aretoko DJen txanda izango da: B2B Atraco Negrata, Brava eta Atodamadre.**

DONOSTIA FESTIBALA  
2019ko irailaren 13an eta 14an  
Donostia Hipodromoa

#### Ostirala 13:

**NATOS Y WAOR/ LA PEGATINA/ MALA RODRIGUEZ/ CAROLINA DURANTE/ CARLOS SADNESS/ MS NINA/ LÁGRIMAS DE SANGRE/ TREMENDA JAURIA/ IRA/ JOSEBA IRAZOKI ETA LAGUNAK/ KASKEZUR/ RUKULA/ BUDIN DJ/ MAKALA DJ SET/ P3Z DJ SET**

#### Larunbata 14:

**BERET/ AYAX Y PROK/ GATIBU/ ISEO & DODOSOUND WITH THE MOUSEHUNTERS/ MAIKEL DELACALLE/ BAD GYAL/ TOTE KING/ NERABE/ EL NEGRO/ MELENAS/ LA PLATA/ ANTIFAN/ DABADABA DJS B2B ATRACO NEGRATA/ BRAVA/ ATODAMADRE**

**Bonua:** 45€ Eskaintza martxoaren 6ra arte.

**Eguneko sarrera:** 32€

**Salmenta:** [donostiafestibala.com](http://donostiafestibala.com)

**Kutxabank deskontua:** Lehenengo 1.175 bonuek 8€-ko Kutxabank deskontua izango dute, eta txartel bakoitzarekin gehienez ere bonu bat erosi ahal izango da. Erosketa egiteko unean indarrean dagoen prezioari aplikatuko zaio deskontua. Kutxabank orotarako kutxazainetan eta [www.kutxabank.es](http://www.kutxabank.es) webgunean eskuragarri

